



Jasangarritasunerako Hezkuntzarako Euskadiko IV. Jardunaldiak

“Hezkuntza eta jasangarritasuna
etorkizunera begira”

2015eko azaroak 26-28
BILBOko
Industria Ingeniaritza
Teknikoko Unibertsitate
Eskola

A M A I E R A K

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



ingurugela

25 URTE

© Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
2016ko otsaila

Argitaratzailea

Ihobe, ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Eusko Jaurlaritza

Urkixo Zumarkalea, 36 - 6. solairua
48011 Bilbo

www.euskadi.eus

www.ingurumena.eus

www.ihobe.eus

Tel.: 900 15 08 64

Diagramazioa

dualxj comunicación&diseño

#educacioneuskadi



Liburu honetako edukiak, edizio honetan, lizentzia honen bidez argitaratzen dira:
Aitortza - Ez-komertziala - Eratorritako obrarik gabe, 3.0 Unported, Creative Commons-ena
(informazio gehiago: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

Aurkibidea

Topaketaren helburuak	4
Beharrezko eztabaida bat	4
Lantalde zientifikoa	4
Jasangarritasuna	5
Programa	6
2015eko azaroaren 26a, osteguna	7
2015eko azaroaren 27a, ostirala	9
2015eko azaroaren 28a, larunbata	13
Lantaldeak	14
1. lantaldea: Jasangarritasunerako hezkuntzaren txertaketa politikan	15
2. lantaldea: Hezkuntzan eta prestakuntzan jasangarritasunaren printzipioak txertatzea	17
3. lantaldea: Hezitzaileen, prestatzaileen eta gainerako eraldaketa-eragileen gaitasuna indartzea	19
4. lantaldea: Gazteak gaitzea eta ahalduntzeren inguruko lantaldea	20
5. lantaldea: Jasangarritasuna tokiko esparruan sustatzea	22
Posterrak	23



Topaketaren helburuak

- Esperientziak trukatu eta eztabaida sustatzea, jasangarritasunerako hezkuntzaren arloan izan diren azken gertaera garrantzitsuek ezarritako ildoetan oinarrituz.
- Praktikan antzeman diren ahuleziei eta indarguneei buruz gogoeta egitea eta hurrengo urteetarako ekintza-ildoak proposatzea.
- Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategia aurkeztu eta eztabaidatzea.

Beharrezko eztabaida bat

Garapen Jasangarriko Hezkuntzako Nazio Batuen Hamarkada amaitu ostean, etapa berri bat dugu aurrean. Garai berri honetan funtsezkoak izango dira honako alderdi hauek: erakundeen eta gizarte-eragileen arteko sareko lana, sare sozialak, jasangarritasunerako hezkuntzaren txertaketa administrazio bakoitzaren politketan, gaitasunen garapena, gazteen protagonismoa eta mobilizazioa, trebatzaileen prestakuntza, tokiko erakundeen inplikazioa oinarri komunitarioko programatan, eta abar.

Testuinguru horretan, **Jasangarritasunerako Hezkuntzako Euskadiko IV. jardunaldiak** primerako agertokia izan dira orain arte egindakoa baloratzeko, indarguneei eta ahuleziei buruzko gogoeta egiteko, aurrera egiteko bideak bilatzeko, Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntzako etorkizuneko estrategia aurkeztu eta eztabaidatzeko, esperientziak trukatzeko eta etorkizuneko konpromisoak proposatu eta hartzeko.

Jasangarritasunerako trantsizio-prozesuetan eta, bereziki, jasangarritasunerako hezkuntzan interesa duten pertsona, elkarte, enpresa eta erakunde orok parte hartu ahal izan du jardunaldietan. Plangintza estrategikoan, irakaskuntzan eta prestakuntzan, aholkularitzan eta gaikuntzan, erakundeen eta enpresen

gizarte-erantzukizunean, gizarte-mugimendu ekologistetan, garapen-mugimenduetan, generoari, baterako hezkuntzari eta berdintasunari buruzkoetan, bake- eta bizikidetzakontuetan eta abarretan ibiltzen direnentzat.


Lantalde zientifikoa

- **Jasone Aldekoa.** Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzak.
- **Ibone Ametzaga.** Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU).
- **Gurutze Laboa.** Ingurugela.
- **Josu Larruskain.** Ortzadar Fundazioa.
- **Joseba Martinez Huerta.** Ingurugela.
- **Josean Quijera.** Ingurugela.

Idazkaritza teknikoa

- **Ihobe, S.A.**
eventos@ihobe.eus

Sare sozialak





Jasangarritasuna

Jardunaldiak antolatzeko orduan honako jasangarritasun-irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Kafe eta bazkarirako, Peñascal Fundazioak hornitutako km 0 elikagai ekologikoak erabiltzea.
- Akreditazioetan plastikorik ez erabiltzea.
- Poster-euskarrietan paper eta kartoi birziklatuak eta berrerabilgarriak erabiltzea.
- Ez dira karpetak, poltsak, boligrafoak.... banatu.
- Lanyard-zinta berrerabiltzea.
- Parte-hartzaileen joan-etorriek sortutako CO₂ isurpenak kalkulatu dira. 3000 kg CO₂. Isurpen horiek konpentsatzeko 200 zuhaitz heldu beharko dira urtebetez. Isurpen horiek konpentsatu egingo dira.



Programa

2015eko azaroaren 26a, osteguna

15:30	Akreditazioa eta agiriak jasotzea
16:00	Inaugurazioa - Hasiera
16:30	Hitzaldia: "Etorkizun jasangarrirako hezkuntzaren erronkak". Javier Benayas
17:30	Kafea hartzeko etenaldia
18:00	Mahai-ingurua: "Estrategiak eta politikak"
20:00	Harrera Bilboko udaletxean

2015eko azaroaren 27a, ostirala

09:00	Hitzaldia: "2030erako Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategiaren partaidetza-prozesua". Ana Izquierdo, Lluisa Cendón. Elkartzea
10:00	Lantaldeak
11:30	Kafea hartzeko etenaldia
12:00	"Ingurumen-hezkuntzaren ekarpena, Euskal Autonomia Erkidegoan jasangarritasunaren kultura hedatzeko" liburuaren aurkezpena.
12:15	Mahai-ingurua: "Hezkuntza formala eta ez formala; sinergiak"
13:30	Luncha
14:30	Posterrak
15:00	Lantaldeak
16:30	Kafea hartzeko etenaldia
17:00	Mahai-ingurua: "Komunikabideak eta sareak"
19:15	Irteera. Bisita gidatua Bilboko alde zaharrea

2015eko azaroaren 28a, larunbata

09:30	Lantaldeak
10:45	Kafea hartzeko etenaldia
11:15	Lantaldeek ateratako ondorioen aurkezpena
12:00	Hitzaldia: "Larrialdi ekologikoa. Ekintzarako garaia da". Federico Mayor Zaragoza
13:00	Amaiera-ekitaldia



2015eko azaroaren 26a, osteguna



Hitzaldia: "Etorkizun jasangarriko hezkuntzaren erronkak"

Javier Benayas. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Ekologia-irakaslea. Espainiako Unibertsitateetako Errektore Konferentziaren (CRUE) Jasangarritasun Batzordeko idazkari exekutiboa.

Hitzaldi horren helburu nagusia etorkizun jasangarriko hezkuntzan orain arte egin denari buruz hausnartzea izan da, hala, egindako akatsetatik ikasiz, etorkizunerako ikuspegia zehazteko.

1. Norantz goaz?

Aldaketa hori ugaritzen duten elementuz betetako aldaketa bertiginoso batean gaude. Azken belaunaldi honetan, 3.000 milioi biztanle izatetik (1958. urtean) 7.000 milioi biztanle izatera igaro gara, eta beraz, lurrak sor dezakeena baino gehiago kontsumitzen ari gara, baina kontsumo "finitua" duen mundu "finitu" batean bizi gara. Duela denbora askotik sortutako kapitala kontsumitzen ari gara... hobekien bizitzen ari den belaunaldia gara (egiten dugun kapital-kontsumoagatik), etorkizuna hobetzeko zer bait egin dezakeen bakarra. Norantz jo behar du aldaketak? Hasieran, ingurumen-hezkuntzaren inguruko gogobetetasun handia egon zen Espainian, eta ordudanik lan handia egin da... Baina zer gertatu da? Ereduek ez du etorkizunik, jasangarritasunik ezaren "boom" betean gaude... Horrenbestez, beste kultura bat sortu eta gizarte osoa hezten jarraitu behar dugu.

2. Zer egin dugu?

Oso garrantzitsua da azken 30 urteetan egin ditugun akatsak planteatzea, hau da, zertan huts egin dugun jakiteko helburuarekin hausnartzea. Zergatik ez du funtzionatu?

- Ez da egindako bidearen balantzerik egin; egindako akatsetatik ikasi eta diagnostiko on bat egin behar da.
- Lortutako lorpenen ikuspegi kritikorik eta errealistik gabe lan egin da.
- Ez ziren lehentasunezko lerroak ziztuzten estrategia garbiak proposatu.
- Ez da teoriaren eta praktikaren arteko kontrasterik egin.
- Konbentzitura dagoenari konbentzitzen lan egiten dugu, baina oraindik konbentzitu gabe daudenengana iritsi behar dugu.
- Ekimen guztiak erakundeen esku utzi ditugu eta ekimen pertsonala galdu dugu... Eta krisiarekin, diru-laguntzen zati handi bat galdu dugu.
- Ingurumen-hezitzaileen sakabanatzea eta batasunik eza, ez dago baterako ikuspegirik, elkarrekin jarduteko gaitasuna galdu dugu. Gogoberotasuna eta motibazioa galdu ditugula dirudi.
- Hezitzaile eta profesional onak sustatu eta prestatzearen aldeko apustua baino apustu handiagoa egin da hezkuntza-baliabideen (bideoak, ikus-entzunezkoak...) alde.
- Ingurumen-hezkuntza guztiz dibortziatuta dago kudeaketarengandik, eta hark ez du ezertarako balio kudeaketa-proposamen zehatzekin lotuta ez badago.

3. Etorkizuneko perspektibak.

Zer bide jarraitu?

- Pertsonak ahaldundu behar dira, aukera jasangarriak aukeratu ditzaten: ez da kontzeptuei dagokienez hezi behar, bizimoduak dagokienez baizik, etorkizuna jasangarria da edo etorkizuna... hezitzailea inoiz baino garrantzitsuagoa da. Bizi-esperientzia esanguratsuak sortu behar dira, pertsonengana hobeto iristeko.
- Benetako ekintzak proposatu behar dira, ez da nahikoa kanpainak bakarrik egitea, aukeratzeko aukera jasangarriak sortu behar dira.



- Hezitzaileen esperientzia baloratu eta aprobetxatu behar da.
- Jasangarritasunarekin lotutako konpromisoak eta aurrerapenak ebaluatu behar dira... praktika egokien katalogoa...
- Ikerkuntzan paradigma-aldaketa bat egin behar da: ikerlaria izatetik dinamizatzaileraditutua izatera...
- Gazteak funtsezko giltzarri gisa hartu behar dira.
- Udaletako ingurumen-teknikariei jarraitutasuna eta egonkortasuna eman behar zaie.
- Erabakiak hartzen dituztenak hezi eta konbentzitu behar dira (administrazioak, enpresak...).

Ondorioz, **EKINTZAREKIN KONPROMETITZEKO GARAIA DA.**



Arantxa Atxa, UNESCO Etxeko zuzendariak, garapen jasangarrirako hezkuntzako nazioarteko estrategiak barne hartzen dituen ildo nagusiak aurkeztu zituen. Nazio Batuen zenbait dokumenturen artean, eta gero taldeetan egingo den lanerako hausnarketa gisa balio dezan, UNESCOren garapen jasangarrirako hezkuntzako Ekintza Plan Globalak ezartzen dituen lehentasunezko bost ekintza-eremuak azaldu zituen: politikak sustatzea, ikaskuntza- eta irakaskuntza-guneak eraldatzea, hezitzaileak eta prestatzaileak gaitzea, gazteak ahaldundu eta mobilizatzea, eta tokiko irtenbide jasangarriak sustatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Saileko zuzendari nagusia den heinean, **María Uribe** "2020rako Jasangarritasunerako Hezkuntzako Ekintza Programaren" laburpen bat egin zuen. Haren helburua Bizkaiko lurralde historikoan jasangarritasunaren kultura hedatzea da. Programaren oinarritzko ideia honako hau da: hezkuntza erreminta ezin hobea da gizarte jasangarriak eraikitzeko behar diren balioak, ezagutzak, eskumenak eta gaitasunak sortzeko. Era berean, programak alderdi soziala eta kulturala jorratzen ditu, baita beste eremu batzuk ere, gobernantza eta ekonomia, esaterako. Gainera, tokiko administrazioa, hezkuntza formala, ez formala eta informala, enpresa eta herritarrak azpimarratu behar dira. Bizkaiko Foru Aldundiak honako konpromiso hauek bereganatu ditu: eragile desberdinen arteko koordinazioa, ekimen berrien babesa, Bizkaiko gazteen foroaren sustapena, eta teknologia berrien aldeko apustua.

Mahai-ingurua: "Estrategiak eta politikak"



- Koordinatzailea: **Angel Cantera**. Zuzendaria. Gipuzkoako Ingurugela.
- UNESCO Etxea. **Arantza Atxa**, zuzendaria.
- Bizkaiko Foru Aldundia. **Maria Uribe**, Ingurumeneko zuzendari nagusia.
- Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. **Alexander Boto**, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria.

Alexander Boto, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariak, Euskadiren azken 30 urteetako ingurumen-politikarekiko ikuspegia eskaini nahi izan zuen. 1998. urtera arte nolabaiteko ezinegona nabarmendu zen, eta bertan, eztabaida soziala eta hezkuntzaren premia nabarmendu ziren. Urte horretatik aurrera, kalitatearen, ebaluazioaren, strategiaren eta sarearen aldeko apustua egin da. 1998. urtean, ingurumen-politiketan aldaketa hori ematen lagundu zuten bi dokumentu estrategiko



azaleratu ziren, "Ingurumena babesteko lege orokorra" eta "Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020". 2015. urtetik garatutako politikek hezkuntza jasangarria eta integrala izan behar dute xede, betiere bizitza osoan zehar ikastearen garrantzia eta hezkuntza eta gizarte arloko berrikuntza gailenduz. Erronka gisa, Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa ingurumenarekin lotutako gaietan txertatzearen garrantzia azpimarratu zuen.



2015eko azaroaren 27a, ostirala



Hitzaldia: "2030erako Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategiaren partaidetza-prozesua"

**Ana Izquierdo,
Lluisa Cendon.**
Elkartzea

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak hala eskatuta, 2015eko ekainean martxan jarri zen 2030erako Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategia prestatzeko prozesua.

Bilatu nahi zenari buruzko lehen hausnarketa egin ostean, 2030erako EAEko Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategiak hezkuntza eraldatzailearen oinarriak zehazteko balio behar zuela ondorioztatu zen, hala, gizarte jasangarriagoa lortzeko. Horren bidez, pertsonen eta komunitateen euren inguruneari buruzko kontzientzia hartu eta uneko eta etorkizuneko ingurumen-arazoak konpontzen jardutea ahalbidetzen duten ezagutzak, balioak, trebetasunak, esperientzia eta irimotasuna bereganatzea zen helburua.

Estrategia prestatzeko orduan ezinbestekoa da, lan-esparru desberdinetatik, gaiari buruzko beren ikuspegia eta ezagutza eskaintzen duten eragileak izatea. Horregatik, estrategia prestatzeko prozesuan zehar hezkuntza formaleko, ez formaleko eta informaleko zenbait eragilerekin jarri gara harremanetan, informazioa jaso eta Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntzaren lehen ikuspegia jorratzea ahalbidetu duten lan-saioak prestatzeko. Bigarren fasean, zenbait bilera egin dira interes-taldeekin, betiere etorkizunerako erronkak eta garatu beharreko jarduketak identifikatzeko. Guztira 60 pertsonen parte hartu dute partaidetza-prozesuan.

2030erako Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategia UNESCOk zehaztutako Garapen Jasangarriko Hezkuntzaren kontzeptuan oinarritzen da. Pertsonen ondo oinarritutako erabakiak hartu eta orain eta etorkizunean bere eta gainerakoen ongizatearen alde jokatzeko jarrerak, gaitasunak, ikuspegiak eta ezagutzak garatzen laguntzea da haren helburua. Hala, Garapen Jasangarriko Hezkuntzak (GJH) etorkizun jasangarriago bateranzko bidea aurkitzen laguntzen die munduko herritarrei.



Unescok honako gai hauek jotzen ditu lehentasunezkatzat: klima-aldaketa, hondamendiak jasateko arriskua murriztea, biodibertsitatea, pobrezia murriztea eta kontsumo jasangarria. Horiez gain, 2030erako Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategiak **Euskal Herriarentzako lehentasunezko gai** gisa hartzen ditu honako hauek: ondare naturala eta kulturala, kontsumo jasangarria, eta gizarteratzea eta aukera-berdintasuna.

Dokumentu sinplea, praktikoa eta zehatza lortu nahi da, Eusko Jaurlaritzaren ekintzarako printzipioak eta jasangarritasunerako hezkuntzan ekintza laguntzailea hitzartzeko gobernantza-eredua barne hartuko dituen. Hori lehen exekuzio-fasean egin beharko da.



Argitalpenaren aurkezpena: "Jasangarritasunerako hezkuntza EAEn"



Asun Fernández,
José Manuel Gutierrez.
Bizkaiko Ingurugela.

Joseba Martinezek (Bizkaiko Ingurugelako lehenengo zuzendaria), "*Jasangarritasunerako Hezkuntza EAEn*" izeneko liburuaren egileak aurkezten ditu, **Asun Fernández** (Bizkaiko Ingurugelako zuzendari ohia) eta **Jose Manuel Gutiérrez** (Bizkaiko Ingurugelako aholkularia), hain zuzen ere.

Esku artean dugun liburua, 2013ko ikasturte amaieran egindako bilduma lan bat da.

Asunen esanetan, bi arrazoik bultzatu zuten liburua idaztera, bere erretiroa eta Ingurugelaren 25. urteurrena.

Ingurugelan lanean 21 urte eman eta gero, Asunek egindako ekintzak jasotzeko bultzada sentitu zuen. Jose Manuri laguntza eskatuz, eta azkeneko 10 urteetako Ingurugelako memoriez baliatuz, liburua idazteari ekin zioten. Euskadik jasangarritasunari egindako ekarpena agerian jartzeko asmotan idatzi dute liburua. Hau da, ingurumen-hezkuntzak jasangarritasunaren kulturari egindako ekarpena zein izan den jakinarazteko ideiarekin jaiotako liburua da.

Burututako lanak, ingurumen-hezkuntzan lanean ari diren pertsonen duten garrantziaz ohartaraztera eraman ditu. Eta ekarpenen bat azpimarratzekotan, eragile desberdinen artean egindako elkarlana izango litzateke. Hori dela eta, proiektu moduan, Eskola Agenda 21a goraipatu nahi izan dute.

Atzera begira egindako lanak, etorkizunera esperantzaz begiratzera bideratu ditu, orain lanari ekinez gero, etorkizunean jasangarritasunaren hezkuntzan arituko direnen "harrobia" ziurtatuta dagoela adieraziz.

Edonola ere, jasangarritasuna planeta mailan lortzeko, erronka garrantzitsu bat aipatu nahi izan dute, jasangarritasuna kultura- eta gizarte-gaietan txertatzearen ezinbestekotasuna.



Mahai-ingurua: "Hezkuntza formala eta ez formala; sinergiak"



- Koordinatzailea: **Jasone Aldekoa**. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzia.
- Hezkuntza formala: **Josu Etxaburu**. Zuzendaria. IES Elorrio BHI.
- Unibertsitatea: **Iratxe Amiano**. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU).
- Ekipamenduak: **Josu Larruskain**. Ortzadar.

Koordinatzaileak, **Jasone Aldekoak**, hausnarketen hari gidari gisa jardun zuten bi galderak planteatu zituen. Lehenengoan, euskal gizartean jasangarritasunarekin lotutako gaitasunak garatzeko moduei buruzko informazioa jasotzen saiatu ziren.

Parte-hartzaile bakoitzak bere aplikazio-eremutik jorratu zuen gaia, baina denak antzeko ondorioetara iritsi ziren. Hezkuntza, zentzu zabalean ulertuta, funtsezko pilarea da jasangarritasunarekin lotutako eskumenak garatzeko orduan. Modu koherentean jarduteko balioak partekatuko dituen gizarte jasangarri bat lortu nahi badugu, hezkuntza formala ez da nahikoa, hark hezkuntza ez formalean oinarritu behar baitu. Are gehiago, bizitzako momentu guztietan ikasteko gaitasuna garatzea ezinbestekoa dela uste dute, eta horregatik, hezkuntza informalararen kontzeptua eztabaida-gaietara gehitzea erabaki dute.

Bigarren galderaren bitartez, hezkuntza formalaren, ez formalaren eta informalararen arteko sinergiak nola lortu erantzuten saiatu ziren. Bat etorri ziren sinergien garrantzia azpimarratzeko orduan, horiek baitira hezkuntza integrala lortzeko



estrategia bakarra. Hezkuntza formalak eta ez formalak mezu komun bat izan behar dute, eta hezkuntza ez formalak lehenengoaren osagarri gisa jardun behar du. Hau da, biek hezkuntza-estrategia komun bat izan behar dute, bakoitzak bere metodologiak eta prozesuak izan arren. Horretarako, lan-sare batzuk sortu behar dira ekipamenduen eta ikastetxeen artean, gaia proiektu globaletan eta hezkuntza-sinergietan oinarrituz jorratu dadin.

Egoera konplexu baten aurrean gaudenez, oso garrantzitsua da eragile guztiek parte hartzea, hezkuntza-prozesua modu holistikoan jorratu eta jasangarritasunerako eskumenak zeharka txertatzeko. Eta horretarako ezinbestekoa da herritarrak gaitzea.

Era berean, hezkuntza informala gainerakoekin bateratzeak duen garrantzia azpimarratu zuten, askotan aurkako mezuak bidaltzen baitira. Horrenbestez, hori ere etorkizunerako erronka gisa planteatu dute.

Laburbilduz, ahaleginak bateratu behar dira gure ikasgeletatik ateratzen diren pertsonak, hau da, etorkizuneko profesionalak, ingurumen-premiei aurre egiteko gai izan daitezen, testuinguruko akademikotik eta zientifikotik kanpo.



Mahai-ingurua: "Komunikabideak eta sareak"



- Koordinatzailea: **Matxalen Sotillo**. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU).
- Komunikabideak: **Francisco Góngora**. "El Correo" egunkariko kazetaria.
- Sare sozialak: **Agustín Bastida**. ESenRED. Madril.
- Komunikazioa ingurumen-hezkuntzan: **Jesús de la Osa**. CEAM. Zaragoza.

Komunikabide tradizionalentzat, ingurumena kazetaritzaren alderdi marjinal bat da. CISEko datuek adierazten duten moduan, ingurumena ez dago herritarren kezka nagusien artean, ingurumenaren hezkuntza ez dago gizartearen agendan, eta beraz, beste alderdi batzuekin batera, ia ez du presentziarik komunikabide tradizionaletan. Eztabaidari ekiteko bi galdera planteatu ziren: lehenengoak komunikabideek eta sare sozialek bete behar duten eginkizunari egin zion erreferentzia, jasangarritasuna gizartearen agendan sartu dadin, eta bigarrenak, aldiz, hori egiteko moduei buruzko informazioa jasotzea zuen helburu.



Jesús de la Osaren arabera, oso garrantzitsua da gizarteak ingurumenarekin lotutako gaiei buruzko informazioa izatea, eta horretarako, modu desberdinen bitartez konektatu behar da publiko bakoitzarekin. Zentzu horretan, ezin dugu ahaztu sare sozialen garrantzia, horien bitartez, herritarrak informazioaren igorle eta protagonista bihurtu baitira. Dena den, eta komunikabide tradizionalak krisialdian egon arren, arrail digitalaz eta bitarteko horien bitartez sare sozialak erabiltzen ez dituzten pertsonengana iritsi beharraz jabetu behar dugu. Halere, eta **Francisco Góngorak** adierazi duen moduan, komunikabideen interes nagusiak gertakariak, politikari buruzko informazioa eta kirolak dira. Ingurumena horien interes-eremutik kanpo dago.

Klima-aldaketaren narratibak aldatzeko garaia iritsi dela uste dute, mezu katastrofistak alde batera utzi eta mezu baikorrak eskaintzeko garaia alegia, betiere egoera arintzeko egin daitekeena azpimarratuz. Adibidez: kanpoan gertatzen diren muturreko fenomeno meteorologikoak erabil daitezke klima-aldaketaz hitz egiteko, betiere hark izan ditzakeen irtenbideak aipatuz.

Baikorrak izateaz gain, mezuek benetakoak, zuzenak eta ulerterrazak izan behar dute. Albisteei aurpegia jartzeak ere asko laguntzen du, baita norabide berean lan egingo duten pertsona berrien agerpenak ere. Zentzu horretan, **Agustín Bastidak eTwinning** kontzeptuari buruz hitz egin digu, autonomia-erkidego desberdinetako zentroen artean lankidetzako proiektuak gauzatzeko berdinen arteko ikaskuntza-plataforma bat.

Nolanahi ere, jasangarritasuna oso konplexua da, eta hezkuntza eta komunikazioa ez dira ingurumen-arazoak konpontzeko irtenbide bakarrak. Horren isla, ekintzara igarotzen ez den informazioa duen jende asko dagoela esan genezake. Beraz, oraindik lan asko egin behar da informazioaren eta ekintzaren arteko oztopoak ezabatzeko.



2015eko azaroaren 28a, larunbata



Hitzaldia: “Larrialdi ekologikoa. Ekintzarako garaia da”

Federico Mayor Zaragoza.

Fundación para una Cultura de Paz.

Federico Mayor-Zaragoza irakasleak mezu argia eta sendoa helarazi nahi izan zigun: hezkuntza ezinbestekoa da jasangarritasunaren bidean, betiere lehenbailehen jardutearen ideia azpimarratuz. Barack Obama eta Francisco aita santua aipatu ostean (iritzi bera partekatzen dute), ekintza gehiago atzeratu ezin daitekeela eta ekintzak une egokian gauzatu behar direla nabarmendu du, bihar berandu izan baitaiteke.

Larrialdi ekologikoaren egoera horren aurrean, irtenbidea hezkuntzan oinarritzen dela uste du. Hezkuntzaren bitartez, gizakiak giza espeziearen berezko gaitasunak garatzen ditu (pentsatu, hausnartu, irudikatu, aurrean, etorkizuna asmatu), pertsona askeak eta arduratsuak izateko, UNESCOk berak dioen moduan. Belaunaldiarteko gure erantzukizunaz jabetu behar dugu, hurrengo belaunaldiei etorkizuna bermatzeko.

Irakaslearen arabera, errealitatearen ezagutzak sakona izan behar du, aurrerantzean sortutako aldaketak ere sakonak izan daitezten. Haren ustez, dagoeneko ezagutza nahikoak ditugu eta dagoeneko egoeraren diagnostiko egokia dugu; orain irtenbideak bilatu behar ditugu, hau da, ekintzara igaro behar dugu. Horretarako funtsezkoa da hezitzaileak termino zientifikoetan prestatzea eta zientziak aurrera egin ahala eguneratzen joatea.

Era berean, hezitzaileengan pentsatzen dugunean, ez dugu komunikabideek gizarte osoarengana iristeko bide gisa betetzen duten eginkizuna ahaztu behar. Benetako informazioa igortzearen erantzukizuna bereganatu behar dute, herritarrek benetan gertatzen dena jakin dezaten.

Sare sozialek modu askean hitz egin eta parte hartzeko duten garrantzia azpimarratu du. Ekintza atzeraezina den garai hauetan, sare sozialek jarduteko eta norbere ideiak adierazteko aukera eskaintzen dute.

Hezkuntza ez da esparru formalera mugatu behar eta hezkuntzak ez ditu ikastetxeak bakarrik ukitzen; aitzitik, hezkuntzak herritar guztiengana bideratuta egon behar du, bitzta osoan zehar bereganatu beharreko zerbait da.

Gaur egungo larrialdi-egoera kontuan hartuta, lehenik eta behin gobernatzaileak hezi behar direla dio, horiek eragin zuzena baitute neurriak garaiz hartu daitezten. Izan ere, gobernatzaileak dira espekulazioen ekonomiatik, deslokalizazio produktibotik, gerra-ekonomiatik garapen jasangarriaren ezagutzan oinarritutako ekonomiara igarotzeko urratsak eman behar dituztenak. Horiek dira jasangarritasuna bermatu behar dutenak, egoera itzulezinerira iritsi ez gaitzen. Garapena sustatu behar da, eta ezin dira horretarako laguntzak murriztu. Merkataritzako jarraibideek ezin dute justizia soziala ordezkatu.

Horregatik guztiagatik, eta amaitzeko, Federico Mayor-Zaragozak jardunaldien garrantzia azpimarratu nahi izan du, aurrekari batzuetan oinarrituz, etorkizuna asmatzen laguntzeko baliabide gisa.



Lantaldeak



Jardunaldi horietan bost lantalde garatu ziren. Horietako bakoitzak 2030erako EAEko Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategiaren oinarri teorikoa osatzen duten lehentasunezko ekintza-eremuetako bat jorratu zuen. **GAP: Garapen Jasangarrirako Hezkuntzako (GJH) Ekintza Programa.**

Jardunaldietako lantaldeak

1. Jasangarritasuna txertatzea politiketan (aldaketa sistemikoa).
Dinamizazioa: **ARTELATZ.**

2. Jasangarritasuna txertatzea erakundeen kulturaren (ikuspegi globala).
Dinamizazioa: **GALEMYS.**
3. Hezitzaileen eta aldaketa-eragileen gaitasunak sendotzea. Dinamizazioa: **ORTZADAR.**
4. Gazteak gaitzea eta ahalduntzea.
Dinamizazioa: **ARAZI.**
5. Jasangarritasuna sustatzea tokiko esparruan.
Dinamizazioa: **PROMETEA.**

Lantaldeak hiru saiotan bildu ziren. Jarraian, egindako dinamikak eta lortutako ondorioak aurkezten dira



1. lantaldea: Jasangarritasunerako hezkuntzaren txertaketa politikan

Lehen saioa

Garapen Jasangarriko Hezkuntza (GAP) programari buruzko nondik norakoak gaiaren testuingurua finkatzeko. Gure lantaldeari dagokion lana: lehen atala politikan txertatze lana.

Lantaldeari zuzen loturiko GAParen aterakina. GJHri laguntzeko politikak egitea.

GJH sartzea hezkuntzako eta garapen jasangarriko nazioarteko eta Estatuko politiketan. Garapen jasangarriko hezkuntza eta ikaskuntza bultzatzeko eta hezkuntza zein irakaskuntza formaleko, ez-formaleko eta informaleko GJHri loturiko neurriak sendotzeko funtsezkoa da horretarako aukera ematen duen legedia ezartzea. Partaidetza-prozesuetan oinarritutako politika egokiak eta koherenteak egin behar dira, ministerioen eta sektoreen arteko koordinazioaren bitartez, eta gizarte zibilaren, sektore pribatuaren, unibertsitate-komunitatearen eta tokiko taldeen parte-hartzearekin. Legedia egokia sortu behar da, behar bezalako lotura izango duena gauzatuko den horrekin, eta horretarako honakoa behar :

- GJHa sistematikoki sartzea hezkuntzako sektore osoari edo sektoreko azpitalde bati bideratutako politika guztietan. Hau da, GJHa ikasketa-planetan txertatuko da, hala nola, kalitatearen gaineko Estatuko arauetan eta adierazleetan, ikaskuntzaren emaitzen gaineko arauak ezartzeko balio dutenak. Hala, GJHa hezkuntzako nazioarteko agenden elementu garrantzitsuetako bat izango da.
- GJHa sistematikoki sartzea garapen jasangarriari loturiko erronka nagusien gaineko politiketan. Hau da, hezkuntza eta ikaskuntza kontuan hartzea Rioko hiru konbentzioei buruzko Estatuko politiketan, konbentzio horiek komunikazioari, hezkuntzari, prestakuntzari eta sentsibilizazio publikoari aitortzen dioten zeregin garrantzitsua k direla-eta. Hala, GJHa

garapen jasangarriko nazioarteko agendetan sartuko da.

- GJHa sistematikoki sartzea garapenerako lankidetzaren esparru aldebikoetan eta aldeanizetan.

Talde honetan, garrantzi berezia dute agenteei eta parte-hartzeari buruzko galderek.

- Zein da bidea politiketan jasangarritasunerako hezkuntza txertatu ahal izateko?
- Zein politika behar dira? Politika guztien zeharkako ardatz gisa egituratu behar da jasangarritasunerako hezkuntza, edo jasangarritasunerako hezkuntzako politika espezifikoak behar du Euskadik?
- Nork sustatu behar ditu politika horiek?
- Zein eratarik bermatu daiteke jasangarritasunerako hezkuntzaren printzipioen araberakoa izatea parte-hartze politika? Zer betekizun dagokie herritarrei politikan?

Lehen galderak: Etorkizuneko elementuak, zein da gure ikuspegia etorkizunari begira?

- 2030. urteko helmuga jarri dute. Nola ikusten dugu gure ingurua, herrialdea, Europa edota mundua urte horretan? (hobera, txarrera... zergatik?)
- GJH beharrezkoa al da? (Bai/Ez... zergatik).

Galderei erantzuteko eta hausnarketarako bi argazki sorta luzatu genituen. Talde erdiari bilakaera ezkorren isla ematen zuten argazki sorta eta beste erdiari berriz, baikorra. Azpitaldeko bakoitzak aurkeztutako egoera aintzat hartuta erantzun zuen. Hasieran bakarkako hausnarketa egin zen eta ondoren binaka.



Bigarren galdera: JH politikan txertatzeko lana

- Zein da bidea politiketan jasangarritasunerako hezkuntza txertatu ahal izateko? Egungo lau adibide eman ziren:
 - a) Eskolako Agenda 21 (ikus laburpen-fitxa).
 - b) Goi-mailako lanbide-zikloetan Ingurumen Hezkuntzari ematen zaion tartea. (ikus laburpen fitxa).
 - c) Uribe Kostako Mankomunitateak ur-kontsumoaren inguruan egindako kanpaina.
 - d) Bilboko udalak egindako birziklatzeari buruzko kanpaina.
- Gaur egun, emandako adibideekin eta zuk ezagutzen dituzunekin, nahikoa dela uste al duzu? (Bai/Ez... zergatik?).
- Nola hobetuko zenuke egoera hori?
- Zein da bidea txertaketa hori egiteko?

Bigarren saioa

Bigarren atal honetarako sustatzaileak identifikatzen saiatuko gara. Horretarako, gizartean

egon daitezkeen hezkuntza formala eta ez formalaren inguruko eragileak identifikatuko ditugu. Honako hauek dira ateratako eragileak: familia, alkatea, 3. adineko pertsona, GKE-a edo elkarteak, lehendakaria, udal ingurumen-teknikaria, Iberdrolako promozio-zuzendaria, 1. sektorea, I+D+I Unibertsitatea, komunikabideak, enpresaria...

Identifikatuta egonik partaideak taldean egongo diren artean banatu genituen *"kapela magikoa"* erabiliz. Kapelan aurrez idatzitako eragile horien izenak, taldean egongo diren paper adina sartu genituen. Pertsona bakoitzak paper bana hartu zuen eta bertan azaldu zitzaion eragilearen *"zapatak jantzi"*, bere azalean jarri eta ondorengo ariketa/galderari erantzun zioten:

Zein eratarik bermatu daiteke jasangarritasunerako hezkuntzaren printzipioen arabera partaidetza politikoa? Beste era batera esanda... Nola sustatu parte hartzeko politika horiek? Herritarrei zein betekizun dagokie? **"Gometsak" erabiliz eman ziren erantzun zehatzagoak lehenetsi ziren eta hona hemen horren arabera zerrenda:**

Nola bermatu partaidetza?

- Partaidetza-prozesuak erabakiak hartu baino lehenago izatea.



- Emaizten eta egindako lanaren hedapena.
- Informazio ulerterraza sektore guztientzat, komunikazio-teknika egokiak erabiliz, bide digitala ahaztu gabe eta ingurumen-inpaktuko azterketen ondorioak lau dimentsio hauetan jakinaraziz:
 - Ingurumen arlokoa.
 - Soziala.
 - Ekonomikoa.
 - Kulturala.
- Gizarteko eragile guztiekin lantaldeak sortu, sektore guztietan: hezkuntza formala, ez formala, enpresak, ikerketa-zentroak, lehen sektorea, hirugarren adina... Bereganatzeaz gain, beraiengana zuzendu behar da, norberaren testuingurura gerturatuz.

- Parte hartzearen kultura bultzatu. Horretarako gune, pertsona... egokiak identifikatu.

Hirugarren saioa

- Adierazleak tratatzeko unea: kuantitatiboak, kualitatiboak, irudiak (emotikonoak) erabiliz... taldeka adierazleak identifikatzeko tartea planteatutako helburuak lortu diren jakiteko.
 - Nolakoak? Adibideak.
 - Zenbatero?
 - Non azaldu beharko lirateke?
- Ikusgaitasuna. GJHri begira ikusgaitasun gehiago nola lortu?
- Laburbiltzeko tarte orokorra.

2. lantaldea: Hezkuntzan eta prestakuntzan jasangarritasunaren printzipioak txertatzea

Parte-hartzaileak

Unibertsitateko irakasleak, prestakuntza-zikloetako irakasle eta ikasleak, ekipamenduen enpresa kudeatzaileak, ekipamenduekin lotutako administrazioko langileak, Eskola Agenda 21ekin lan egiten duten profesionalak, eta Ingurugelako ordezkariak. Oso talde anitza eta aberasgarria izan da, GJHn lan egiten urteak daramatzaten pertsonen eta gai horretara lehen aldiz gerturatu ziren pertsonen osatua.

Lantaldearen dinamikatrabajo

- **Lehen saioa:** 25 pertsona inguru.
Saioarekin hasteko, bertaratuak aurkeztu ziren. Gero, Ingurugelako arduradunek testuinguruan kokatu zituzten parte-hartzaileak, eta jardunaldien helburua azpimarratu zuten, hau da, esperientziak trukatzeko eta Aurkezpenak

egin ostean, nagikeria kentzeko jarduerak bat egin zuten, ideien fabrika martxan jartzeko. Jarduera horretarako, airean ahalik eta denbora gehien mantendu behar zuten globo bat erabili zen; hala, zirkuluan jarritako parte-hartzaileek globoa kolpatu behar zuten jardunaldiei



buruzko beren itxaropenak adierazten zituzten bitartean (galdera honi erantzun behar zieten: Zertara etorri zara hona?). Jarduera horrek izotzaldia urtu eta giro lasaia eta parte-hartzailea lortzeko balio izan zuen.

Jarraian, eta gaian sartuz, galdera hau planteatu zen: 2030. urtean nolakoa izatea nahi dugu GJH, hezkuntza- eta prestakuntza-erakundeetan? Ideia ugari adierazi eta arbela kontzeptuz bete ostean, parte-hartzaileek etorkizuneko agertokia irudikatu zuten.

● **Bigarren Saioa:** 18 pertsona inguru.

Agertoki horretan oinarrituz, 4 koadranteko itu bat marraztu zuten horma batean.

Talde txikitan, parte-hartzaileek koadrante desberdinetan mugitu ziren, koloretako post-it-etan, irudikatutako agertoki horretara iristeko HELBURUAK eta EKINTZAK idatziz. Itu horretan txandakatzeko sistemari esker, aurreko taldeen oharra irakurri, horiek oinarritzat hartu edo horiek osatu ahal izan zituzten.

● **Hirugarren saioa:** 12 pertsona inguru.

Itua helburuz eta ekintzez bete ostean, horman islatutako ideien inguruan hitz egin zuten parte-hartzaile guztiak; gero, horiek bateratu eta lehentasunak ezarri zituzten. Ateratako ondorioak hurrengo taulan jaso dira.

	Helburuak	Ekintzak	Adierazleak
Eragileak/ Koordinazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Sarean lan egitea - Helburu komunak zehaztea 	<ul style="list-style-type: none"> - Inplikaturako eragileen mapa sortzea - Diziplinarteko taldeak sortzea - Lidergo malgua, partekatua eta birakorra ezartzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu komunen kopurua. Xedea: 2030erako, partekatutako helburuen % 60. 3-5 urtez behin berrikusi daiteke
Partaidetza	<ul style="list-style-type: none"> - Partaidetzaren kultura maila guztietan sustatzea - Parte hartzeko espazioak eskaintzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Erabaki lotesleak hartzea - Teknologia berriekin komunikazio-bideak irekitzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera edo ekitaldi lotesleak kopurua - Ekitaldi horietan ordezkaturako eragile-kopurua - Hartutako erabaki-kopurua
Ikusgaitasuna/ Komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Partaidetza sustatzeko komunikatzea (informazioa eman eta pentsamendu kritikoa sortzeko) 	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza garbia eta sinesgarria izango duen komunikazio-plan bat egitea, hartzailarengan pentsatuta. Baterako hezkuntzan oinarritutako komunikazioa, benetako, positiboa, koherentea, solidarioa, egokitua, hunkigarria... 	<ul style="list-style-type: none"> - Inkestak - % de participantes - Inpaktu-indizea (Zenbat aldiz agertzen da komunikabideetan?)
Beste batzuk	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza-faseetako eta kudeaketaren, administrazioaren eta enpresen sektoreko <i>curriculumean</i> erraz antzeman daitezkeen ingurumen-adierazleak sortzea 		



3. lantaldea: Hezitzaileen, prestatzaileen eta gainerako eraldaketa-eragileen gaitasuna indartzea

Talde honetako parte-hartzaileak hezkuntza-esparrutik (hezkuntza formala nahiz ez formala) eratorritako pertsonak ziren. Unibertsitateko eta ikastetxeetako irakasleak, eta ingurumen-hezkuntzarekin lotutako enpresetako profesionalak.

Lehen saioa aurkezpen-dinamikarekin abiarazi zen, eta gero, talde txikiak egin ziren horietako bakoitzak proposatutako gai bati buruzko hausnarketa egin zezan. Adibidez: Nola ikusten duzu ingurumen-hezkuntzaren etorkizuna? Nolakoa izan beharko luke? Nortzuk izan behar dute aldaketaren eragileak? Eta abar. Taldean 30 minutu inguru lan egin ostean, proposamen komun bat egin zuten. Dena den, pertsona guztiek ekarpen berriak egiteko aukera izan zuten.

Lehen saio horretan honako ondorio hauek atera ziren:

- 2030ean, jasangarritasunerako hezkuntzak koherentea izan behar du eta helburu komun batzuk izan behar ditu. Praktikoa, emozionala, parte-hartzailea, kooperatiboa eta laguntzailea izan behar du, eraginkortasuna lortuz.
- Ingurumen-hezkuntzan edo etorkizuneko jasangarritasunerako ezinbestekoak dira prestakuntza espezifikoak duten eragileak, pertsona horien motibazioa eta jarrera positiboak direlako, hain zuzen.
- Partaidetzak emozionala eta eraginkorra izan behar du, hau da, administrazioak sustatutako proposamen parte-hartzaileetatik ateratako ondorioak kontuan hartu behar ditu eta jarduera koherenteak sustatu behar dira. Komenigarria da ingurumen-hezkuntzan lan egiten duten pertsonen artean sare bat izatea. Jendearengana iristeko sare sozialak erabiltzea. Turismoko bisita gidatueta jasangarritasunari buruzko informazioa ematea.



- Sentsibilizazio-kanpainak bideratzeko baliabideak eta horiek nola erabili jakiteko prestakuntza eskaintzea. Jasangarritasunaren alde lan egiten duten eragileen artean (udalak, administrazioa, ikastetxeak, interpretazio-zentroak...) komunikazio-sareak sortzea. Oso garrantzitsua da jasangarritasunaren aldeko ekintzak zabaltzea, eta horretarako, komunikazioan eta marketinean adituak diren pertsonak izatea komeni da.

Bigarren saioaren helburua lantaldeari buruzko galdera zehatzei erantzutea izan zen. Horretarako, eta parte-hartzaile bakoitzaren itxaropenak ezagutzeko dinamika bat egin ostean, 4x4 teknika erabili zen. Teknika horren xedea hausnarketa pertsonala egitea da, binaka, launaka, eta azkenik, talde osoan adostasun batera iritsi arte.

Momentu horretan, hirugarren eta azken saioan zehaztu beharreko zenbait ideia sortu ziren.

Azken saio horren helburua aurreko egunean sortutako ideia guztiak ekintza zehatz bihurtzea zen. Horrela, berriz ere talde txikitik lan egin zen. Horietako bakoitzak alderdi jakin baten inguruan. Honako hauek izan ziren ateratako ondorioak:



- Aldaketaren eragile izango diren pertsonen prestakuntzak irekia izan behar du esparru guztietan, hau da, etengabeko prestakuntzan oinarritu behar du. Horretarako, jasangarritasuna txertatu behar da irakasle-ikasketetan eta irakasleen prestakuntzarako masterrean.
- Ekipamenduetan ingurumen-hezkuntzan lan egingo duten pertsonentzako ingurumen-prestakuntza egokia lortzeko, baldintza egokiak behar dira. Horretarako, norbere hitzarmena egitea proposatzen da.
- Gainera, hezkuntza formala ez da nahikoa aldaketaren eragileengana eta herritarrengana iristeko. Administrazioak, bereziki, garrantzia eman behar dio hezkuntza ez formalari.
- Irakasleen eta ekipamenduetako eragileen, udalen eta abarren artean esperientziak trukatzeko baliabideak proposatu behar dira, hau da, denbora, lekua... Horretarako, sare bat sortzea komeni da.
- Tokiko administrazioen zenbait eremutan sustatu behar da jasangarritasuna, eta horretarako ezinbestekoa da irakasle eta herritarrekin sortutako sare horretan gertutasunez lan egitea.

4. Lantaldea: Gazteak gaitzea eta ahalduntzeren inguruko lantaldea

Egitaraua

- Ingurugela: Ongi etorria eta aurkezpena (10 min).
- Arazi: Testu-ingurua zehaztu eta tailer bakoitzerako proposatzen den helburu zehatza definitu; norberak bere lan-esparruan aurkitzen dituen gabeziak zehazteko ariketa; lantaldeak egin (20 min).

- Parte-hartzaileen eztabaida talde txikitik (60 min); hausnarketarako irudiak eskaini dira (ikus eranskina).

Bileraren bilakaera

- Testuingurua zehaztu eta tailer bakoitzerako proposatzen den helburu zehatza definitu.



- Norberak bere lan-esparruan aurkitzen dituen gabeziak zehazteko ariketa.

Parte-hartzaileei honako gonbidapen hau egin zaie: eragileen artekoelkar lana sare batekin irudikatuko bagenu, zer nolako hutsuneak aurkitzen ditugu egunerokotasunean? Hutsune horiek josteko haria gu geu izango gara, eta ondoko irudian ikusten den bezalaxe, sare trinkoa sortzeko ekintzak planteatzeko helburua izango dugu.

Bigarren tailerraren zehaztapena

- Helburu zehatza: **"Gazteak ahalduntzea"**.
- Egitaraua:
 - Arazo: Taldean sartu berri diren parte-hartzaileen aurkezpena eta lehen tailerraren laburpena (10 min).
 - Parte-hartzaileen eztabaida talde txikitan (80 min); hausnarketarako irudiak eskaini dira (ikus eranskina).

Hirugarren tailerraren zehaztapena

- Helburu zehatza: **"Gaitzearen eta ahalduntzearen arteko zeharkako elementuak"**.
- Egitaraua:
 - Arazo: Aurreko tailerretan lorturiko ondorioak aurkeztu, bi taldetan errepikatu diren ideia nagusiak azalduz; saioaren helburuak adostu (15 min).
 - Parte-hartzaile guztien arteko eztabaida eta Araziko lantaldeak sorturiko aurkezpena partekatzea (60 min).

Taldearen ondorioak

- Ekintza dibertigarriak eskaini behar ditugula aipatu da, baina gazteei zuzendutako guztiak ez du dibertigarria izan behar; bizitzan gauza dibertigarriak eta ez dibertigarriak daudela ikasi behar dute. Terminoa ordezkatzeko proposatu da eta *"ekintza erakargarriak eta eraginkorrak"* erabiltzea adostu da. Emozio negatiboak ere eraginkorrak izan daitezke modu konstruktibo batean lantzen baditugu.
- Gazteen ekosistemetara hurbiltzea planteatu da eta terminoa zehaztu nahi izan da. Gaur egun, gazteak lokal edo lonjetan elkartzen dira, eta bide honetatik gizartetik urrun dauden iriak sortu daitezke... Helburua ez da irla horiek mantentzea, baizik eta gizartearen parte direla ikustaraztea eta eragile garrantzitsuak direla ulertaraztea. Bide horretan, gazteak elkartzen diren tokietara hurbiltzea izango litzateke lehen urratsa, betiere beste eragile batzuekin harremanetan jartzeko eta gizartearen aberastuko duen sare bat osatzeko helburuarekin. Horretarako, gazteei iristen zaizkien kanalak erabili behar ditugu.
- Gazteek ahalduntzea lortzeko jakituria eta esperientzia bereganatu behar dute. Bide horretan, gehien dakienari kasu egiten zaio ohikoan... eta horretarako erreferente garbiak behar dituzte gizartean, gazte zein helduen artean. Ahalduntzea lortzeko modu eraginkorrena talde mistoak sortzea izango litzateke: helduak eta gazteak, diziplina anitzetan lan egiten duten pertsonak, eta abar.
- Euskadiko Estrategia idazteko orduan ere gazteen inplikazioa kontuan hartu al da? Gonbidatuak izan diren arren ez da lortu haien parte-hartzea. Gazteen iritzia ezagutzeko kanal egokiak eskaini behar ditugu.



5. lantaldea: Jasangarritasuna tokiko esparruan sustatzea

Lantalde honetan 25 pertsona inguruk parte hartu dute. Oso talde anitza izan da, tokikoa denarekiko oso ikuspegi desberdinak dituzten 9 gizon eta 16 emakumez osatua: udal langile teknikoak, ingurumen-hezkuntzako ekipamenduetako langileak, hezkuntza formaleko eta ez formaleko irakasleak, ingurumen-elkarteetako pertsonak, eta ingurumen-hezkuntzako nahiz beste diziplina batzuetako profesionalak.

3 lan-saioretan zehar, taldeak honako gai hauek jorratzea ahalbidetu duen ibilbide bat gauzatu du, urratsez urrats:

1. **2030erako EAeko Jasangarritasunerako Hezkuntzako Ikuspegiaren** definizioa. Modu sinplean eta adostuan, taldeak 2030erako lortu beharreko agerlekua zehaztu du; era berean, jomuga horrek inspirazio gisa balio izan du lantalde osoan zehar.
2. **Jasangarritasunerako Hezkuntzaren gaur egungo errealitateak Euskadin** dituen ezaugarri nagusien hausnarketa eta eraikuntza kolektiboa; gainera, jarduera horri esker, taldeak **ekosistema** edo eragile desberdinen multzoa zehaztu ahal izan du, modu batean edo bestean, tokiko esparruan parte hartzen dutenak.
3. **Tokiko esparrutik**, Jasangarritasunerako Hezkuntzaren **etorkizunerako gako eta erronka** nagusiak identifikatzea, honako hauek, alegia:



- Hiria espazio hezigarri eta jasangarri gisa ulertu, landu eta garatzea.
- Enpresak eta jarduera ekonomikoak Jasangarritasunerako Hezkuntzan gehiago txertatzea.
- Komunikabideak Jasangarritasunerako Hezkuntzan gehitzea.
- Herritarren ekimenei lekua uztea: gizartearen eta herritarren ahalduntzea.
- Hezkuntza formalaren esparruan Jasangarritasunerako Hezkuntzaren programak mantendu eta sendotzea (Eskolako 21 Agenda edo beste batzuk). Horrela, ingurumen-hezkuntzak ohitura eta jarrera jasangarrietan egiten duen ekarpena sendotu ahal izango da, baita eskumenetan eta berrikuntzan ere.
- Jasangarritasunaren Hezkuntzarako baliabide berriak ikertu, berritu eta garatzea, besteak beste, konbentzituta ez dauden pertsonengana iristeko.
- Jasangarritasunerako Hezkuntza tokiko ingurumen arloko kudeaketa-programetan gehitzea –Tokiko 21 Agenda edo garatzen ari diren beste batzuk–.
- Ingurumena despolitizatzea.
- Tokiko administrazioak Jasangarritasunerako Hezkuntzarekiko duen inplikazioa eta konpromisoa handitzea: lehentasun politiko, baliabideak...
- Jasangarritasunerako Hezkuntza arloko eragileen arteko sareak, lankidetzak eta koordinazioa sustatzea.
- Ingurumen arloko informazioa eta gardentasuna sendotu eta areagotzea.
- Egindako lana, aurrerapenak eta Jasangarritasunerako Hezkuntzaren atzean dauden balioak helarazi eta aitortzea.

Edonola ere, talde-lanak argi eta garbi islatu du **tokiko esparrua kontuan hartzearen egokitasuna**; izan ere, hura funtsezko esparrua da Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza jorratzeko.





Zk.	Izenburua	Egileak
1	Optimización de los recursos tecnológicos: cómo hacer sostenible la docencia experimental universitaria	Barona, A*, Elías, A*, Gallastegui, G., Rojo, N., Aleksanyan, A., Diaz-Tena, E., Etxebarria, B.
2	Inventario, diseño e implementación de medidas de reducción y tratamiento de residuos alimenticios generados en las Escuelas Universitarias de Ingeniería Técnica de Minas y Obras Públicas e Ingeniería Técnica Industrial de la UPV/EHU	M ^a Arritokieta Ortuzar; Amaia Menéndez; Itziar Aranguiz; Elena Bilbao; Ana de Luis; Jesús Echevarria; M ^a Pilar Ruiz; Jone Varela
3	Redes para la educación ambiental. Un modelo de anclaje de la EA en el currículo escolar	Silvia Velázquez
4	La Participación del alumnado como elemento clave en la transformación socio-ambiental del entorno educativo	Juan Carlos Fernández Miranda, Gabriel Latorre Díaz, Mónica Ruiz Ascacibar y Carlos Zaldívar Ezquerro
5	Eskolan erein, herrian uzta batzeko	Inazio Zubizarreta Herri Ikastetxea - Igorre
6	Ciencia Ciudadana, una herramienta para impulsar la sostenibilidad en el ámbito local	Belamendia, Gorka; Mesanza, Jesús; González, Roberto; De Juana, Fernando, Lobo, Luis; Agut, Agustí; Pérez, José Ramón; Ameskoa, Saioa; Zufiaur, Amaia; López, Emilio
7	Los servicios de los ecosistemas del Anillo Verde de Vitoria/Gasteiz: educación para la sostenibilidad	Lorena Peña, Estefanía Hurtado, Miren Onaindia
8	Indicadores de servicios ecosistémicos: herramienta para la sostenibilidad municipal	Gloria Rodríguez-Loinaz, Mari Mar Alonso, Ainhize Butrón, Miren Onaindia
9	Responsabilidad de los medios de comunicación en el fomento sostenible de la imagen social de la persona emprendedora	Araujo de la Mata, Andrés Gabantxo-Uriagereka, Miren Hoyos Iruarrizaga, Jon Saiz-Santos, María
10	La creación de valor para los stakeholders a través del student engagement: el caso de la Darden	Leire San-Jose (presentadora oral) Maite Ruiz-Roqueñi Jose Luis Retolaza
11	Geología y Sostenibilidad para todos: cantera de Ereño	Ana Pascual*, Xabier Murelaga
12	Baratze Eskola, hezkuntzarako baliabidea	Amalia Virto eta Naiara Elorriaga
13	Gazte Ekoliderrak, Jasangarritasunak liderrak behar dituelako	Itsaso Olaizola eta Amaia Otazo
14	Conocimientos y habilidades para la sostenibilidad en Ingeniería	Cristina Peña Rodríguez*, Maria Ángeles Corcuera Maeso, Aitor Arbelaz, Arantxa Eceiza, Florencio Fernández Marzo



Zk.	Izenburua	Egileak
15	Camino hacia la sostenibilidad social: prestación social básica	Inazio Zubizarreta herri ikastetxea - Igorre
16	Trabajo Experimental Sostenible en el Máster de Ingeniería de Materiales Renovables	M ^a Ángeles Corcuera, Ana Elías, Aloña Retegi, Nagore Gabilondo, M ^a Aranzazu Eceiza
17	Los serious games como herramientas educativas y de mejora de la gestión pública	Sedano Hoyuelos Máximo Peña Miguel, Noemi
18	II Estrategia de Educación Ambiental de Castilla y León 2015-2020: metodología para su elaboración y resultados	Alonso Temiño, Carmelo Paz Fernández, M ^a . Carmen
19	Gestión y tratamiento de los bioresiduos en la UPV/EHU mediante el huerto y compostaje escolar: Oportunidades didácticas para fomentar la sostenibilización curricular	Daniel Zuazagoitia, Aritz Ruiz-González, Arantza Rico, Teresa Ruiperez, Joserra Díez
20	Ziraba Proiektua: anfibio eta narrastiak oinarri dituen jakintza alor anitzeko egitasmoa	Ion Garin-Barrio, Egoitz Alkorta & Iñaki Sanz-Azkue
21	Educación Ambiental Comunitaria: Reciclaje 1983-2015	Rosa Arburua Goienetxe
22	Eskola erresilienteak: komunitatea eraldatzeko ingurumen hezkuntza berritzailea	Mikel Edeso R. Mendiburu
23	Zero zabor eskolak	R. Mendiburu





EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

www.euskadi.eus
www.ingurumena.eus
www.ihobe.eus